

Koldo Mitxelenaren ekarpena literatura sailean

Jon Casenave

Literatura sailean: era askotako lanak

Literatura sailean, era askotako lanak egin ditu Koldo Mitxelenak. Eragin handiko antolatzaile eta kudeatzailea izan da, *Egan* eta *Euzko gogo* aldizkarietan egin duen lana hor dago lekuko. Eragile gisa agertzen da ere, aholkuak emanez idazleak bideratzen dituelarik.

Leturiaren egunkari ezkutua (1957) liburua-ren aitzinsolasean (1977ko berrargitalpenean), Txillardegik berak kontatu zuen itzulpen proiektu batekin¹ joan zitzaiola ikustera eta Mitxelenak aholkatu ziola sorkuntza baten egitea. Itxura guzien arabera, euskaraz egin den lehen eleberrri moderno solasaldi horretarik jalgi zen. Eta bitartekaritza lan horren beste adibide franko eman daiteke, besteak beste, Jon Mirande edo Jon Etxaiderekin ukan dituen harremanak aipatuz. Hots, literatura garatu guzietan aurkitzen diren eragin handiko jende horietarik bat izan da Koldo Mitxelena.

Bestalde, lan handia egina du ere kritika mailan, literatura sailean zinemakoan bezainbat iduriz. Horretan ere aurrekaria izan da Koldo Mitxelena, eta pentsa daiteke literatura mailan funtsezko bereizketa ekarri zuela kritikaren alorrean. Ordu

1. «Knut Hamsum-en *Pan* nobela zoragarria hautatua nuela, hain zuzen.

— Ez, ez, erantzun zidan brauki Mitxelenak.

— Inolaz ere ez ! Zeure buruz asmatu behar duzu zuk nobela bat eta horixe izkiriatu. Ez zazu, beraz, Hamsum itzul». Txillardegi, «Bigarren argitaraketa dela-ta, hitzaurre», *Leturiaren egunkari ezkutua*, 1977.

Aportación de Koldo Mitxelena al ámbito de la literatura

En el ámbito de la literatura, Koldo Mitxelena, además de escritor, ha sido un gran gestor y un organizador influyente, pero también fue promotor, guiando y encaminando con sus consejos a los escritores.

En el prólogo de la edición de 1977 de la obra *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), el propio Txillardegi narra cómo había acudido a Mitxelena con un proyecto de traducción y cómo él le había aconsejado que creara su propia obra; al parecer, la primera novela moderna en euskera fue fruto de esa conversación.

Pero sin duda alguna, la mayor aportación de Koldo Mitxelena a la historia de la literatura vasca ha sido su obra *Historia de la literatura vasca* (1960).

Koldo Mitxelena preparó una primera versión de *Historia de la literatura vasca* para la colección *Historia General de las literaturas Hispánicas* (Barcelona, 1958), pero más adelante,

Itzaropenes bisig

Koldo
MITXELENA
ELISSALT
1915-1987
erakusketa
exposición



GANBARA aretoa
urdaneta kalea, 9
20006 Donostia
Tfno: 482893 Fax: 482765

1997ko martxoaren 21etik maiatzaren 10era
del 21 de marzo al 10 de mayo de 1997

Asteartetik larunbatera zabalik 10,30-14,00 eta 16,00-20,30.
Igande, astelehen eta jai egunetan itxita.
Abierto de martes a sábado 10,30-14,00 y 16,00-20,30).
Cerrado domingos, lunes y festivos.

Aste Santuan zabalik: osteguna, ostirala, larunbata, igandea eta astelehena: 12:00-14:00 / 16:30-20:30
Semana Santa abierto: jueves, viernes, sábado, domingo y lunes: 12:00-14:00 / 16:30-20:30



Fotografía: © Alberto Sioner

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Departamentuak 1997ko martxoaren 21etik maiatzaren 10era Koldo Mitxelena Kulturunean antolatutako "Koldo Mitxelena Elissalt 1915-1987" izeneko erakusketa iragartzeko liburuxka. Erakusketa bere heriotzaren 10. urteurrenaren oroitzapenetan egin zen.

hartan, salbuespen gutti kendurik (Pierre Lhande² aipa daiteke horien artean), filologoaren kritika moldearen nagusi, eta hizkuntzari ematen zitzaien lehentasuna liburu baten balioa irakurleari aurkezterakoan. Koldo Mitxelena, nahiz era guzietako liburuak aztertzen zituen, obraren helburu estetikoak hobesten zuen beti, hots euskal literaturari egiten zion ekarpenaren argitan ematen zuen.

Lehen puntuak artikulu baten heina mereziko luke, literatur soziologiaren ikuspegitik eta bigarrenak, omenaldi urtekari honetan berean atal berezi bat ukatu du bestalde. Aurkezpen labur honetan, hirugarren eratako ekarpena aipatu behar da, hain zuzen, Koldo Mitxelena euskal literaturaren historiari egin zion ekarpena, *Historia de la literatura vasca* (1960) liburuarekin.

Ekarpen nagusi bat: *Historia de la literatura vasca* (1960)

Koldo Mitxelena *Historia de la literatura vasca* saioaren lehen bertsioa moldatu zuen *Historia General de las literaturas Hispánicas* (Barcelona, 1958) bildumarako. Idazlana osatu ondoan, liburu bakarra agerrarazi zuen Euskal Herrian, 1960an. Euskal literaturaren historia sailean, liburu horrek bihurtu bat gauzatu zuen³. Ordu arteko historia saioak gainditu zituen «metodologia historikoa» molde zehatz batez erabiliz. Bide batez, inguruko eremu kultural nagusietan baliatzen ziren oinarritzko arau historiografikoak erakarri zituen euskal eremura.

Koldo Mitxelena baino lehen euskal literaturaren historiak argitaratu ziren lan gehienak ez ziren bide beretik ari, izan daitezen Francisque Michelek argitaratutako *Le Pays basque* (1857), Julien Vin-

2. Besteak beste, Pierre Lhandek Txomin Agirrearen obrak egin artikulua aipa daiteke edo Etxahun-Barkoxeren figuraz egin zuena:

- 1923: "Agirre, irakurgaikiña", *Euskal-Esnalea* agerkariaren gehigarrian.

- 1923: "Le barde Etchahoun", *Gure Herria*.

3. 1983an argitaratu zen artikulu batean, Txuma Lasagabasterrek idatzi zuen euskal literaturaren historiak egin zen lehen azterketa zientifikoa izan zela Koldo Mitxelena *Historia de la literatura vasca* (1960).

Lasagabaster, "La historiografía literaria vasca-Aproximación bibliográfica", in *Las literaturas de los vascos*, Deusto, 2002.

lo publicó como libro en Euskal Herria, en el año 1960, llegando a ser un hito: superaba los anteriores intentos de hacer historia valiéndose de un modelo de «metodología histórica» concreto, y al mismo tiempo, hizo traer al ámbito del euskera las reglas historiográficas básicas que se aplicaban en los ámbitos culturales más importantes del entorno.

Sus elecciones metodológicas e historiográficas en *Historia de la literatura vasca*, han llevado a Koldo Mitxelena a situarse al nivel de las historias de la literatura que se realizaban en las culturas más desarrolladas de Europa. Su modelo se basa en tres pilares: el lenguaje, la geografía y el ámbito literario; es decir, Mitxelena incluyó en su *Historia* obras escritas únicamente en euskera (ni obras sobre el euskera, ni traducciones); obras escritas en todo el territorio vascofono (tanto en Hegoalde como en Iparralde); y obras que tenían un sentido, un fin estético o literario. Por tanto, podemos decir que Mitxelena nos dejó una historia moderna de la literatura vasca, mientras que hasta entonces lo habitual eran las historias del euskera escrito.

La *Historia de la literatura vasca* de Koldo Mitxelena ha sido una obra decisiva, un hito; ha sido la base para las historias que se han publicado posteriormente; ha sido un ejemplo a seguir tanto en el mundo de la enseñanza, como en el mundo de la investigación y entre los escritores.

son-ek egin zuen *Les Basques et le Pays basque* (1882), Pierre Lhande-ren *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925), Orixeren *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* (1927) baita ere Piarres Lafitteren *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (1941).

Horietarik batzuek, euskal gaiez erdaraz idatzitako obrak sartu zituzten euskal literaturaren corpusean. Beste batzuek bakarrik iparraldeko edo hegoaldeko autoreak zituzten kontuan hartu. Eta gehienek, euskal literaturaren historia egin orde, euskaraz idatzitako obrak aurkezten zituzten, ezau-garri filologikoak hobetsiz eta kriterio literarioak edo estetikoak bigarren mailara pasazten zituztela, hala nola 1962an, Luis Villasanteren *Historia de la literatura vasca* liburuan.

Eredu historiografiko berri bat

Historia de la literatura vasca liburuan egin zituen aukera metodologiko eta historiografikoei esker, Koldo Mitxelena bete-betean sartu zen XIX. mende hondarretik aitzina Europa mailan egiten zen literaturaren historian. Europako kultura garatuenetatik hasiz tipienetaraino, nazioaren inguruan eraiki zen nagusiki literaturaren historia. Hobeki erranez, triptiko baten inguruan: eremu nazional bat, hizkuntza nazional bat eta hizkuntza horretan idatzitako obra multzo baten corpusa. Delako eremua eta haren baitako ezaugarri geografiko eta kulturalak, baita ere bizimoldeak hizkuntza nazionalaren bitartez finkatuak ziren obra nagusien korpusean. Horien deitzeko, Pascale Casanovak⁴, "Estetika nazionalak" erran-moldea erabiltzen du.


Europako kultura garatuetan baliatzen zen eredu nazional horren arabera eta euskal literaturaren historiari begira, Koldo Mitxelena hiru oinarri finkatu zituen historiografiaren aldetik. Lehena, hizkuntzari lotua zen: harentzat, euskaraz idatzitako testuek zuten bakarrik osatzen Euskal literatura deitu saila eta aurreko askoren aurka joanez, euskal gaiez idatzi erdarazko testuak eta itzulpenak baztertu zituen bere historiatik.

Oinarri linguistiko horren parean oinarri geografiko bat ezarri zuen eta horretan ere aurrekaria izan zen. Euskal literatura aipatzerakoan, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko obrak erabili zituen bereizketarik gabe, hots, euskara erabilia izan den eremu guzian idatzitako obrak hartu zituen kontuan.

Hirugarren oinarriaren arabera, literatura saileko idazlanak dira bakarrik helburu estetiko edo literario batekin idatziak izan direnak. Ezaugarri hau ere erakarri zuen Mitxelena eta arau berria zen euskal literaturarentzat orduko idazle eta historialarien artean.

Beraz, azken ezaugarria kontuan hartuz, erran daiteke euskal literaturaren historia moderna sortu eta egin zuela, aitzineko gehienek euskara idatziaren historia egin zutelarik. Bestalde, aurreko bi ezaugarrien bitartez, ageri da Europako beste herrialdeetan XIX. mendeaz geroz nagusitu zen "eredu nazionala" egokitu ziola ahal bezainbat euskal eremu kulturalari. Gorago erran bezala, egokipen horrek funtsezko bihurtune bat markatu zuen eta ordutik hona argitaratu diren historiak oinarritzko aukera historiografiko horietarik abiatu dira.

Ondoko hamarkadetan, liburua eredu gisa gelditu da, irakaskuntzaren munduan baita ere ikerle eta idazleen artean. Euskal kulturak liburua-aren edukia, metodologia historikoa eta ardatz teorikoak barneratu ditu mende erdi batez.



4. Pascale Casanova, *La République mondiale de Lettres*, Seuil, Paris, 1999.